| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2017KO MARTXOAREN 14AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 14 DE MARZO DE 2017.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Keltse Eiguren Alberdi And.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hamalauan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a catorce de marzo de dos mil diecisiete, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria

Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**99.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO MARTXOAREN 7AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

**99.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 7 DE MARZO DE 2017.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2017ko martxoaren 7ko bilerakoa, hain zuzen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 7 de marzo de 2017.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**100.- UDALERRIKO JAI-ESPARRUETAN EZARTZEKO KOMUN KIMIKO ERAMANGARRIAK ETA GAINERAKO AZPIEGITURAK ERRENTATZEKO KONTRATUA LUZATZEA.**

**100.- PRÓRROGA DEL ALQUILER DE SANITARIOS QUÍMICOS Y PORTÁTILES Y DEMÁS INFRAESTRUCTURAS EN DIFERENTES RECINTOS FESTIVOS.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: HIRUROK ZERBITZUAK, S.L. enpresarekin (IFK: B-95146486), GETXO UDALERRIKO ZENBAIT JAI-ESPARRUTARAKO KOMUN KIMIKOAK NAHIZ ERAMANGARRIAK ETA GAINERAKO AZPIEGITURAK ALOKATZEKO, sinatutako kontratuaren indarraldia URTEBETEZ

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera prórroga), desde el 12/05/2017 al 11/05/2018, la vigencia del contrato suscrito con la empresa HIRUROK ZERBITZUAK, S.L." con CIF: B-95146486, para el ALQUILER DE SANITARIOS QUÍMICOS Y PORTÁTILES Y DEMÁS INFRAESTRUCTURAS EN

luzatzea (lehenengo luzapena) 2017-05-12tik 2018-05-11ra; URTEKO PREZIOA 24.596,10.- eurokoa da, gehi BEZari dagozkion 3.499,68.- euroak, honela banakatuta:

- 15.140,97.- euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 1.514,10.- euroak, komunak alokatzeagatik.

- 9.455,13.- euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 1.985,58.- euroak, gainerako azpiegiturak alokatzeagatik.

Prezioaren barnean gastu guztiak sartzen dira, garraiokoak barne.

BIGARRENA: Behar den gastua baimendu eta xedatzea: 24.596,10.- euro, gehi 3.499,68.-euro (BEZari dagozkionak).

DIFERENTES RECINTOS FESTIVOS DEL MUNICIPIO DE GETXO, por el PRECIO ANUAL DE 24.596,10.-€ más 3.499,68.-€ correspondiente al I.V.A., desglosado en las siguientes cantidades:

- 15.140,97.- euros más 1.514,10.- euros correspondientes al 10% de I.V.A. por el alquiler de los sanitarios.

- 9.455,13.-euros más 1.985,58.- euros correspondientes al 21% de I.V.A. por el alquiler del resto de las infraestructuras.

En el precio deben entenderse todos los gastos, incluso los de transporte.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 24.596,10.-€ más 3.499,68.-€ correspondiente al I.V.A.

**101.- JAI-OSPAKIZUNAK ANTOLATZEKO AGERTOKIAK ERRENTATZEA LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: URTEBETEZ luzatuko da (lehenengo luzapena, bakarra), 2017-06-21etik 2018-06-20ra arte, MONTAKETAK, S.L. enpresarekin, IFK: B-95325452, sinatutako kontratuaren indarraldia, GETXON OSPAKIZUNAK EGITEKO AGERTOKIEN ALOKAIRURAKO, 41.745.-eurotan, % 21eko BEZa barne.

BIGARRENA: Behar den gastua baimentzea eta xedatzea, 41.745.-eurokoa, % 21eko BEZa barne.

**101.- PRÓRROGA DEL ALQUILER DE ESCENARIOS PARA LA CELEBRACIÓN DE FESTEJOS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 21/06/2017 al 20/06/2018, la vigencia del contrato suscrito con la empresa MONTAKETAK, S.L., con C.I.F. nº B-95325452, para el ALQUILER DE ESCENARIOS PARA LA CELEBRACIÓN DE FESTEJOS EN GETXO, por el precio de 41.745.-euros, 21% de I.V.A. incluido.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 41.745.-euros, 21% de I.V.A. incluido.

**102.- HAUR, NERABE ETA GAZTE DESGAITUENTZAKO AISIALDI ZERBITZUA LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: AMESTEN ELKARTEA, GIZARTE-INKLUSIOA, ORIENTAZIOA, BERRIKUNTZA ETA GIZARTE-EKINTZA enpresarekin sinatutako GETXO UDALERRIKO HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO AISIALDI INKLUSIBOKO ZERBITZURAKO kontratuaren indarraldia URTEBETEZ luzatzea (lehenengo luzapena eta bakarra), 2017-03-31tik 2018-03-30era, 22.000 eurotan, gehi % 10eko BEZari dagozkion 2.200 euro.

BIGARRENA: Beharrezko gastua baimendu eta xedatzea: 22.000.- euro, gehi 2.200.- euro (BEZaren % 21ari dagozkionak).

**102.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE OCIO INCLUSIVO PARA INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 31/03/2017 al 30/03/2018, la vigencia del contrato suscrito con la empresa ASOCIACION AMESTEN DE INCLUSION, ORIENTACION INNOVACION Y ACCION SOCIAL, con CIF G95796710, para el SERVICIO DE OCIO INCLUSIVO PARA INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD DEL MUNICIPIO DE GETXO, hasta un importe de 22.000.-€ más 2.200.-€ correspondientes al IVA del 10%.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 22.000.-€ más 2.200.-€ correspondientes al IVA del 10%.

**103.- BOLUKO HONDAKINDEGIA DESGASIFIKATZEKO OBRA-KONTRATUA ESLEITU GABEKOTZAT JOTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: BOLUEKO HONDAKINDEGIAN GASA KENTZEKO OBREN kontratua hutsik geratu dela adieraztea.

BIGARRENA: Ebazpen hau udalaren

**103.- DECLARAR DESIERTO EL CONTRATO DE OBRAS DE DESGASIFICACIÓN DE LA ESCOMBRERA DE BOLÚE.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Declarar desierto el contrato de las OBRAS DE DESGASIFICACIÓN DE LA ESCOMBRERA DE BOLUE.

SEGUNDO: Publicar la presente

kontratariaren profilean argitaratzea.

resolución en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

**104.- BOLUKO HONDAKINDEGIA DESGASIFIKATZEKO OBRA-PROIEKTUA ONETSI, BAIMENDURIK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ABIARAZI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: BOLUEKO HONDAKINDEGIAN GASA KENTZEKO OBREN proiektua onestea. Proiektuaren aurrekontua 130.947,82 eurokoa da (BEZa barne) eta burutzeko epea, berriz, 6 astekoa, obraren zuinketa egiaztatzeko akta ematen denetik aurrera zenbatzen hasita.

BIGARRENA: Baimena ematea aipatutako obra adjudikatzeko izapidea hasteko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

HIRUGARRENA: Administrazioko kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezien eta teknikoen pleguak onestea.

LAUGARRENA: Aipatutako kontratazioak dakartzan betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 130.947,82 eurotan.

**104.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE OBRAS DE DESGASIFICACIÓN DE LA ESCOMBRERA DE BOLÚE, AUTORIZAR EL INICIO DEL EXPEDIENTE PARA SU ADJUDICACIÓN, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar el Proyecto de las OBRAS DE DESGASIFICACIÓN DE LA ESCOMBRERA DE BOLUE, cuyo Presupuesto asciende 130.947,82 euros, I.V.A. incluido y su plazo de ejecución es de 6 semanas, a contar desde el Acta de Comprobación de Replanteo.

SEGUNDO: Autorizar el inicio de la tramitación, por el procedimiento negociado sin publicidad, para la adjudicación de la obra de referencia.

TERCERO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación citada, por importe de 130.947,82 euros.

**105.- HIRI-UDALEKUETAKO ANIMAZIO-ZERBITZUA 2017 URTEKO UDARAKO ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ABIARAZI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI**

**105.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO 2017, APROBAR PLIEGOS Y**

**ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXOKO 2017. URTEKO HIRI UDALEKUETARAKO ANIMAZIO ZERBITZUA publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko arauzko izapideak abiaraztea baimenduko da. Lizitazioaren aurrekontua 55.000 eurokoa (BERROGEITA HAMABOST MILA eurokoa) izango da, % 10eko BEZa barne.

Kontratua gauzatzeko epea kontratua adjudikatzen denetik 2017ko uztailaren 31ra arte izango da. Ezin izango da luzpenik egin.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa agindu behar duten administrazio-baldintza berezien eta teknikoen pleguak onartzea.

HIRUGARRENA: Aipatutako zerbitzuaren kontrataziotik ondorioztatutako betebeharrei aurre egiteko beharrezko gastua baimenduko da 55.000 euroko (BERROGEITA HAMABOST MILA euroko) zenbatekoan.

**AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante procedimiento negociado sin publicidad, del SERVICIO DE ANIMACIÓN DE LAS COLONIAS URBANAS DE VERANO 2017 DE GETXO, cuyo presupuesto de licitación, IVA del 10% incluido, será de 55.000€ (CINCUENTA Y CINCO MIL euros).

El plazo de ejecución del contrato se extenderá desde la fecha de adjudicación hasta el 31 de julio de 2017. No será susceptible de prórroga.

SEGUNDO.- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 55.000€ (CINCUENTA Y CINCO MIL euros).

**106.- GETXOKO UDALEKO ETA UDAL ERAKUNDE AUTONOMOETAKO KONPUTAGAILUAK BERRIZTATZEA ERRENTAMENDU GISA ESLEITZEKO ABIARAZITAKO ESPEDIENTEARI JARRAITZEA BERTAN BEHERA UZTEA.**

**106.- DESISTIR A LA CONTINUACIÓN DEL EXPEDIENTE INICIADO PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarraren 2016-10-25eko 402. Erabakiaren bidez honako hau erabaki zen:

*"LEHENENGOA: GETXOKO UDALAREN ETA BERAIEN ERAKUNDE AUTONOMOEN ORDENAGAILUAK ERRENTAMENDU-MODALITATEAN BERRIZTATZEA, prozedura irekiaren bidez, adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko baimena ematea. Egiten den kontratuak baldintza teknikoen pleguaren 2. klausulan zehaztutako betebehar guztiak egin behar izango ditu. Pleguak kontratu-izaera izango du. Kontratuaren gehienezko aurrekontua 976.881,85 euro izango da, BEZaren % 21 barne, kontratuak irauten duen lau urteetarako, eta kopuru hori lizitatzaileek bere eskaintza ekonomikoetan hobetu ahal izango dute, errentan emango diren ekipamenduen aleko prezioen bidez.*

*Kontratuak LAU URTEKO balioa izango du ekipoen harrera-akta sinatzen denetik zenbatzen hasita, adostutako entregatze-planaren arabera.*

*Kontratuaren balioa 807.340,37 euro da, gutxi gorabehera.*

*BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezien eta teknikoen pleguak onestea.*

*HIRUGARRENA: Aipatutako hornidura, prozedura irekiaren bidez, adjudikatzeko arauzko izapidearen hasiera baimentzea.*

*LAUGARRENA: Hizpide den zerbitzua kontratatzetik eratortzen diren betebeharrei*

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por Acuerdo nº 402 de la Junta de Gobierno Local de Getxo, de fecha 25/10/2016, se acordó:

*"PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, de la RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS. El contrato que se realice tendrá por objeto todas las labores descritas en la cláusula 2 del Pliego de Condiciones Técnicas que tendrá carácter contractual. El presupuesto máximo del contrato será de 976.881,85 euros, 21% de I.V.A. incluido, para los cuatro años de contrato, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en sus ofertas económicas mediante los precios unitarios de los equipos a arrendar.*

*El contrato tendrá un periodo de validez de 4 AÑOS a contar desde la fecha en que se firme el acta de recepción de los equipos, de conformidad con el Plan de Entrega acordado.*

*El valor estimado del contrato asciende a 807.340,37 euros.*

*SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.*

*TERCERO: Autorizar el inicio de tramitación reglamentaria para la adjudicación, por el Procedimiento Abierto, del suministro de referencia.*

*CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones*

*aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 976.881,85 eurokoa".*

*derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 976.881,85 euros."*

BIGARRENA.- 2016-11-04an, lizitazioaren iragarkia argitaratu zen EBAOn, eta 2016-11-21ean, 281. BOEn.

SEGUNDO.- Con fecha 04/11/2016 se publica el anuncio de licitación en el D.O.U.E. y con fecha 21/11/2016 en el B.O.E. nº 281.

HIRUGARRENA: 2016/11/25eko datarekin, Udaleko erregistro orokorrean, kontratuko pleguen aurkako helegite berezia ezarri zuen "ALGORITMOS, PROCESOS Y DISEÑOS, S.A."k

TERCERO.- Con fecha 25/11/2016 tuvo entrada en el Registro General del Ayuntamiento un recurso especial en materia de contratación interpuesto por la mercantil "ALGORITMOS, PROCESOS Y DISEÑOS, S.A." frente a los pliegos de dicho contrato.

LAUGARRENA.- 2016-12-07ko 5029/2016 Dekretuaren bidez, GETXOKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ORDENAGAILUAK ERRENTAMENDU-MODALITATEAN BERRIZTATZEA adjudikatzeko espedientearen izapideak bertan behera uztea erabaki zen, harik eta Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoak ALGORITMOS PROCESOS Y DISEÑOS, S.A. enpresak jarri duen kontratazio-alorreko errekurtso berezia ebatzi arte.

CUARTO.- Por medio de Decreto 5029/2016, de fecha 07/12/2016, se acordó suspender la tramitación del expediente para la adjudicación de la RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS, en tanto se resuelva por el OARC el Recurso Especial en Materia de Contratación interpuesto por la empresa "ALGORITMOS, PROCESOS Y DISEÑOS, S.A.".

BOSGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoko titularrak 2017ko urtarrilaren 24an hartutako 007/2016 Ebazpenaren bidez honakoa ebatzi zen: «ALGORITMOS, PROCESOS Y DISEÑOS, S.A. enpresak "Getxoko Udalaren eta beraien erakunde autonomoen ordenagailuak errentamendu-modalitatean berriztatzea" kontratatzeko pleguen aurka (Getxoko Udalak izapidetu du kontratua) jarritako errekurtso berezia BAIESTEA; gauzak horrela, ebazpen honen zortzigarren oinarri juridikoan

QUINTO.- Por Resolución 007/2016, de 24 de enero de 2017, del Titular del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi se resuelve "ESTIMAR el recurso especial interpuesto por la COMPAÑÍA ALGORITMOS, PROCESOS Y DISEÑOS, S.A. contra los pliegos del contrato "Renovación, en modalidad de arrendamiento, del parque de ordenadores del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos", tramitado por el Ayuntamiento de Getxo, anulando la cláusula impugnada

aipatu den aurkaratutako klausula baliogabetuko da eta lizitazioa bertan behera utziko da».

mencionada en el fundamento jurídico octavo de la presente resolución y cancelando la licitación"

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Sektore publikoko kontratuen legearen testu bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutakoa (SPKLTB). Zehazki, SPKLTBren 155. artikuluan zehazten da prozedurari uko egin ahal izango zaiola kontratua prestatzeko edo adjudikazio-prozesuaren arauen zuzentezina den hauste batek sortutako arrazoiengatik. Hala, arrazoiaren aldiberekotasuna espedientean justifikatu beharko da.

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP). Y en concreto, el artículo 155 del TRLCSP dispone que podrá desistirse del procedimiento cuando concurra infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las reguladoras del procedimiento de adjudicación, debiendo justificarse en el expediente la concurrencia de la causa.

II.- Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio proposatzen den uko-egitea, kontratazio-espediente honetako kontratazio-organo eskuduna baita.

II.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la renuncia que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

ERABAKI-PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO

BAKARRA: Honako zerbitzu hau PROZEDURA IREKIAREN bidez adjudikatzeko 5688. zenbakidun kontratu-espedienteari jarraipena emateari UKO EGITEA, azalduta geratu diren arrazoiengatik: GETXOKO UDALAREN ETA BERAIEN ERAKUNDE AUTONOMOEN ORDENAGAILUAK ERRENTAMENDU-MODALITATEAN BERRIZTATZEA.

ÚNICO: DESISTIR a la continuación del expediente contractual Nº 5688 para la adjudicación del PROCEDIMIENTO ABIERTO para la para la adjudicación de la RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS, por los motivos que han quedado expuestos.

**107.- GETXOKO UDALEKO ETA UDAL ERAKUNDE AUTONOMOETAKO KONPUTAGAILUAK BERRIZTATZEA ERRENTAMENDU GISA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ABIARAZI, BALDINTZA-AGIRIAK**

**107.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA ADJUDICACIÓN DE LA RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS,**

**ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXOKO UDALAREN ETA BERAIEN ERAKUNDE AUTONOMOEN ORDENAGAILUAK ERRENTAMENDU-MODALITATEAN BERRIZTATZEA, prozedura irekiaren bidez, adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko baimena ematea. Egiten den kontratuak baldintza teknikoen pleguaren 2. klausulan zehaztutako betebehar guztiak egin behar izango ditu. Pleguak kontratu-izaera izango du. Kontratuaren gehienezko aurrekontua 976.881,85 euro izango da, BEZaren % 21 barne, kontratuak irauten duen lau urteetarako, eta kopuru hori lizitatzaileek bere eskaintza ekonomikoetan hobetu ahal izango dute, errentan emango diren ekipamenduen aleko prezioen bidez.

Kontratuak LAU URTEKO balioa izango du ekipoen harrera-akta sinatzen denetik zenbatzen hasita, adostutako entregatze-planaren arabera.

Kontratuaren balioa 807.340,37 euro da, gutxi gorabehera.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezien eta teknikoen pleguak onestea.

HIRUGARRENA: Aipatutako hornidura, prozedura irekiaren bidez, adjudikatzeko arauzko izapidearen

**APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, de la RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS. El contrato que se realice tendrá por objeto todas las labores descritas en la cláusula 2 del Pliego de Condiciones Técnicas que tendrá carácter contractual. El presupuesto máximo del contrato será de 976.881,85 euros, 21% de I.V.A. incluido, para los cuatro años de contrato, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en sus ofertas económicas mediante los precios unitarios de los equipos a arrendar.

El contrato tendrá un periodo de validez de 4 AÑOS a contar desde la fecha en que se firme el acta de recepción de los equipos, de conformidad con el Plan de Entrega acordado.

El valor estimado del contrato asciende a 807.340,37 euros.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el inicio de tramitación reglamentaria para la adjudicación, por el Procedimiento

hasiera baimentzea.

LAUGARRENA: Zerbitzu hori, kontratatzetik eratortzen diren betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 976.881,85 eurokoa.

**108.- BIDEETAKO ZOLADURA GAINEKO MARRAK MARKATZEKO OHIKO MATERIALAK (ZORU GAINEKO SEINALEEN MARGOA) HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA ADJUDIKATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- Udaleko Gobernu Batzarrak 2016-12-07an hartutako 460. erabakiaren bidez, BIDE-MARKETARAKO OHIKO MATERIALAK HORNITZEKO (SEINALE HORIZONTALETARAKO PINTURA) ESPARRU-AKORDIOA adjudikatzeko izapideak hasi zituen, enpresaburu bakar batekin.

Honako hauek dira esparru-akordioaren ezaugarri nagusiak:

- Xede du enpresa bat hautatu, gehieneko prezioak ezarri eta beraren ondorioz sortuko diren zerbitzu-kontratuak eraentzeko oinarriak ezartzea; hain zuzen, kontratuak egingo dira adierazitako materialak hornitzeko, sortzen diren beharren arabera.

Abierto, del suministro de referencia.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 976.881,85 euros.

**108.- ADJUDICACIÓN DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE MATERIALES CONVENCIONALES PARA MARCAS VIALES (PINTURA DE SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por Acuerdo nº460 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 7/12/2016 se inició la tramitación para la adjudicación de un ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE MATERIALES CONVENCIONALES PARA MARCAS VIALES (PINTURA DE SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL), con un solo empresario.

Las características principales de dicho Acuerdo Marco se son las siguentes:

- Constituye su objeto la selección de una empresa, la fijación de precios máximos y el establecimiento de aquéllas bases que regirán los contratos de servicios que de aquél se deriven, para el suministro de los materiales indicados según las necesidades que vayan surgiendo.

- Esparru-akordioak bi urteko indarraldia izango du, hura formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta urtebeteko bi luzapen izan ahalko ditu jarraian.

- Esparru-akordioak iraun bitartean sortu daitezkeen kontratu guztietarako, 45.000 euroko aurrekontua aurreikusi da, gehienez ere, BEZaren % 21 barne (22.500 euro urtean). Nolanahi ere, ez da aurrekontu-gastuko konpromisoa izango, zeina esparru-akordioaren ondorioz sortzen den kontratu bakoitzerako egingo den.

- Esparru-akordioaren balioa 96.694,21 € da gutxi gorabehera, kontuan izanik aldatu egin daitekeela, urtean zenbatekoa gehienez ere % 30ean handituz (BEZa barne).

Egintza berean onetsi ziren baldintzen pleguak, teknikoak nahiz ekonomiko-administratiboak, eta horiexek eraenduko dute akordioa.

BIGARRENA: Derrigorrezko lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016-12-19an.

Lizitazio epea amaitu ondoren, bi eskaintza aurkeztu ziren.

HIRUGARRENA: Kontratazio Mahaiak eskuordetuta (Mahaiaren 2015-06-19ko Erabakiaren bidez) jarduten duen pertsona bakarreko administrazio-organoa den aldetik, Ondare, Kontratazio eta Erosketako arduradunak jendaurreko ekitaldia egin zuen 2017-01-10ean, eta bertan lehenengo gutun-azala ireki zen. Horrek dokumentazio orokorra biltzen zuen eta, egiaztatu ostean, bigarren

- El plazo de vigencia del Acuerdo Marco será de dos años, a partir de la formalización del mismo, siendo prorrogable por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos.

- El presupuesto máximo estimado para el conjunto de contratos que puedan derivarse durante la duración del Acuerdo Marco es de 45.000 euros, I.V.A. 21% incluido (a razón de 22.500 euros/año), sin que suponga un compromiso de gasto presupuestario, el cual tendrá lugar para cada contrato derivado del Acuerdo Marco.

- El Valor Estimado del Acuerdo Marco asciende a 96.694,21 euros, teniendo en cuenta la posibilidad de modificación del mismo, consistente en un incremento máximo del 30% del presupuesto máximo anual (I.V.A. incluido).

En el mismo acto se aprobaron los pliegos de cláusulas, tanto técnicas como económico-administrativas, que han de regir el Acuerdo.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación se publicó en el Boletín Oficial de Bizkaia el día 19/12/2016.

Finalizado el plazo de licitación, se presentaron dos ofertas.

TERCERO.- En fecha 10/1/2017 en acto público celebrado por la Responsable de Patrimonio, Contratación y Compras, como órgano administrativo unipersonal que actúa por delegación de la Mesa de Contratación (delegación otorgada mediante Acuerdo de la Mesa de fecha 19/6/2015), se realiza la apertura del sobre primero -conteniendo la documentación general- y tras la comprobación de tal

gutun-azala ireki zen, automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak zeuzkana (segurantza horniduran eta materialen kalitatea). Azken hori proposamena egin zuen sailari bidali zitzaion, baloratu zezan.

documentación, se procede a la apertura también del sobre segundo, conteniendo los criterios evaluables de forma no automática (seguridad en el suministro y calidad de los materiales), siendo esta última remitida al departamento proponente para su valoración.

Aipatutako sailak txostena egin zuen 2017-01-20an. Txostenaren hasieratik adierazi zuen Marcas Viales, S.A. enpresak bere hirugarren gutun-azaleko datuak (eskaintzen den emateko epea, zehazki) bere bigarren gutun-azalean sartu dituela. Horregatik, Kontratazio Mahaiak lizitaziotik baztertzea erabaki zuen.

El departamento citado emite informe el día 20/1/2017, en el cual comienza poniendo de manifiesto que la empresa Marcas Viales, S.A. ha incluido datos de su sobre tercero (en concreto el plazo ofertado de entrega), en su sobre segundo. Ello así, la Mesa de Contratación acuerda su exclusión de la licitación.

Prozesuan jarraitzen duen enpresak, “Api Movilidad”, puntuazio hau eskuratu zuen:

En cuanto a la empresa q continúa en el proceso, “Api Movilidad” la puntuación obtenida por la misma fue la siguiente:

| IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK<br><br>CRITERIOS NO AUTOMATICOS | SEGURTASUNA HORNIDURAN<br><br>SEGURIDAD EN EL SUMINISTRO | MATERIALEN KALITATEA<br><br>CALIDAD DE LOS MATERIALES | PUNTUAZIOA GUZTIRA<br><br>PUNTUACION TOTAL |
|---|---|---|---|
| **API MOVILIDAD, S.A.** | 25 | 0 | 25 |

